KORRIDOREETATIK

Jose Inazio Basterretxea
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea



Badator bigarren lauhilekoa

Lenengoa akabeute bigarrena asi, dio kopla zaharrak. Unibertsitatean ere, bigarrena badator, etorri: otsailetik ekainera bitarteko ikastaldia eskuetan dugu. Eta zuk zer utzi duzu ekainerako?, galdetzen zion ikasle batek bere kide bati korridorean, azterketak amaitu berritan; otsailean gainditzen ez direnak ekainean ateratzen direlakoan.

Azterketak eta errekuperazioak mintzagai korridoreetan, beraz. Eta Unibertsitateak berak, instituzioak berak, ez al du ezer utzi pendiente ekainerako? Instituzio moduan, EHUk ez al du erronkarik ekaineko azterketetarako? Handiak, nik uste.

Madrilgo Unibertsitate Legeak panorama berria ireki du gure artean eta hurrengo azterketaldia ekainean da. EHU buru-belarri ari da bere plan estrategikoa garatzen —alegia, norantz abiatzen ari den eztabaidatzen, begiak jarrita epe ertainean nahiz luzean, eraiki nahi den unibertsitate-ereduan—. Eta ekainerako zer? Ba, ekainerako hauteskundeak, klaustro berria, estatutu berrien zirriborroa, errektore berria... Ez da gutxi.

Epe laburrean, zazpi eztabaida-atal ireki behar ditu EHUk bere etorkizuneko urratsak diseinatzeko. Bere irakas-eskaintza aztertu nahi du: kalitatea zaintzeko eta gizarte-eskariei lotzeko. Lan talde bat sortuko du zientziaren, teknologiaren eta gizartearen arteko harremanak aztertzeko: ikerkuntza eta finantzaketa-eredu berriak daude aztergai. Kudeaketa eta barne-antolaketa errebisatu gura ditu: lehiakortasuna eta zerbitzuaren publikotasuna daude jokoan. Gizartearekin duen konpromisoa aztertzera doa: gizarte-arazoen bideratze-ekintzetan, protagonismo gehiago errebindikatzeko. Bere normalizazio linguistikoa berraztertu behar du: gizarterako modelo eredugarriak indartzeko ahaleginetan. Unibertsitate-komunitatea biziberritzeko plangintza bultzatu nahi du. EHU irudi berri baten bila doa. Horra zazpi irakasgaiak.

Eta irakasleak? Barne-demokrazia, berdintasun linguistikoa eta kudeaketa gardena, horra maisu-maistren izenak. Gordinak eta zorrotzak hirurak.

Notak ekainean ikusi beharko. Errebalida gainditzerik bai?

BEKAK

Bekak. Informazio gehiago jasotzeko: *www.euskadi.net; www.mec.es / becas / becas.html; www.boe.es /noticias /becas.html; www.infocurso.com; www.becas.com; www.ahoraque.com; www.wanadoo.campus.com; www.infoempleo.com; www.igsap.map.es /does*

EUSKAL HERRIA

Kirol zientziak ikertzeko doktorego aurreko beka emango dute

Deitzailea: Nafarroako Foru Erkidegoa.
Baldintzak: lizentziadun titulua lortzeko behar diren ikasgai guztiak —karrera amaierako proiektuari dagozkionak barne— gainditua izatea eskatzen da. Deialdiaren xedea da Ariketa Muskularraren Biomekanikaz edo Ariketa Muskularraren Fisiologiaz ikerketa proiektua egiteko laguntza eskaintzea. Koalifikazio handiko Kirol Zientzien esparruan doktoretza aurreko prestakuntza eskaini gura zaie bekadunei.
Zenbatekoa: 781 euro hileko.
Epea: otsailaren 21ean agortuko da epea.
Iraupena: urtebeteko bekak emango dira. Gerora, beste hiru urtez luzatu ahal izango dira.
Informazioa: Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren Erregistroa. Tfnoa: 948 427892. Webgunea: *www.cfnavarra.es.*
Iturria: 2002-01-21eko 9. NAO.

Agustin Zumalabe ikerketa bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Espainiako Pediatria Elkartea.
Baldintzak: Banakakoek nahiz helburu horrekin sortutako lan taldeek eska ditzakete bekak. Eusko Ikaskuntzako bazkide direnek edo dokumentazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen bertako bazkide bihurtu direnek eskatu ahal izango dituzte bekak. Antropologia, Etnografia, Gizarte eta Ekonomia Zientziak eta Zuzenbidea gaiak ikertu ahal izango dituzte.
Zenbatekoa: 4.600 euro, orotara.
Epea: otsailaren 28an agortuko da epea.
iraupena: urte erdiko eta urtebeteko bekak banatuko ditu Espainiako Pedriatria Elkarteak.
Informazioa: Eusko Ikaskuntza. Bulego Nagusia Miramar jauregian daukate. Telefonoa: 943 310855. Webgunea: *www.eusko-ikaskuntza.org.*
Iturria: Eusko Ikaskuntza.

Angel Apraiz ikerketa bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Eusko Ikaskuntza.
Baldintzak: Banakakoek nahiz helburu horrekin sortutako lan taldeek eska ditzakete bekak. Eusko Ikaskuntzako bazkide direnek edo dokumentazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen bertako bazkide bihurtu direnek eskatu ahal izango dituzte bekak. Hizkuntza, Literatura, Historia, Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia gaietan egin ahal izango dituzte ikerketak.
Zenbatekoa: 4.600 euro, orotara.
Epea: otsailaren 28an agortuko da epea.
iraupena: gehienez ere urtebete.
Informazioa: Eusko Ikaskuntza. Bulego Nagusia Miramar jauregian dago. Telefonoa: 943 310855. Webgunea: *www.eusko-ikaskuntza.org.*
Iturria: Eusko Ikaskuntza.

ESPAINIA

Ezindu fisikoak lanbide heziketan jarduteko bekak emango dituzte

Deitzailea: Mapfre Medicina Fundazioa
Baldintzak: 17 eta 40 urte bitarteko gizabanakoei emango zaizkie bekak, ezindu fisikoak eta eguneroko jardueretan independenteak badira. Orotariko lantegietan jarduteko bekak banatuko dituzte: Autoedizioan, automobilgintzan. elektronikan, oinarrizko informatikan eta zapatagintzan aritzekoak, besteak beste.
Zenbatekoa: Prestakuntza, mantenua eta joan-etorriak ordainduko zaizkie. Halaber, zehaztu gabeko soldata ordainduko zaie hilero-hilero.
Epea: apirilaren 15ean agortuko da epea.
Iraupena: urtebeteko bekak banatuko dituzte.
Informazioa: Mapfre Medicina Fundazioa. Tfnoa: 91 6265765. Helbide elektronikoa: *www.mapfremedicina.es.*
Iturria: Mapfre Medicina Fundazioa.

EUROPA

Alemaniako Errepublika Federalean ikertzaileek egonaldi laburrak egiteko bekak banatuko dituzte

Deitzailea: DAAD Truke Akademikorako Alemaniako Zerbitzua.
Baldintzak: Edozein ikasketa adarretako lizentziadunek eta ikertzaile gazteek eskatu ahal izango dituzte bekak, betiere 35 urtetik beherakoak badira. Beka eskatzen dutenek alemana jakin beharko dute, zeharka bada ere.
Zenbatekoa: Bekaren iraupenaren eta ikaslearen curriculumaren araberakoa izango da.
Epea: Apirilaren 19an agortuko da epea.
Informazioa: Alemaniako Errepublika Federaleko Enbaxada; *www.embajada-malaga.es.*

MEZUAK

DONOSTIAN pisua osatzeko ikasle bi behar dira. Etxea Alde Zaharrean kokatua dago. Alokairu merkea. Ondo hornitutako egoitza da. 686220200 telefonora deitu, gauez ahal bada.

GASTEIZEN pisua osatzeko ikasle bat behar da. Lakua inguruan dago etxea. Alokairua: 200 euro hileko. Egoitza txukuna da. 945178030 telefonora deitu, goizez ahal bada.

BILBON pisua osatzeko ikasle bi behar dira. Etxea San Mames inguruan kokatua dago. Alokairu merkea. Egoitza txukuna da. 656678765 telefonora deitu, goizez ahal bada.

BIDALI ZURE GUTUNAK ETA MEZUAK

uni@egunkaria.com • EGUNKARIA Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

AGENDA

Kontzertua

Josetxo Goia-Aribe Quarteten 'Herrimiña' kantaldia EHUren Donostiako campusean. EHUk atondu *Kulturgunea* programaren baitako ekitaldia da Josetxo Goia-Aribe Quarteten kontzertua. Laukotea bihar izango da Ibaetan, I. M. Barriola Ikasgelategian. Arratsaldeko 19:30etik aitzina, *Herrimiña* lana aurkeztuko dute: Josetxo Goia-Aribe saxofonista nafarrak, Francois Verly perkusionistak, Jerome Rateau pianistak eta Marc Burinffose kontrabaxuak. Sarrera, doakoa.

Antzerkia

'Historia de Famas y Cronopios' antzezlana EHUren Gasteizko campusean. Simulacro Teatrok *Historia de Famas y Cronopios* antzezlana emango du bihar EHUren Gasteizko campusean, eguerdiko 12:00etan. Getxoko Antzerki Eskolako kide Arantza Iurrek zuzenduta, Aintza Uriartek, Javier Liñerak, Rocio Pindadok, Iban Alonsok eta Carlos Baigesek jardungo dute. Ordu eta erdiko antzerki saioak margolan interaktibo baten ika-mikak azalduko ditu. Unibertsitate Pabilioian eskainiko dute ikuskizuna.

Kontzertua

The Nightporters taldearen emanaldia EHUren Gipuzkoako campusean. The Nightporters taldeak joko du EHUren Gipuzkoako campusean, heldu den asteartean. Eguerdiko 12:15etik aitzina jardungo dute britainiarrok. R & B doinuak eskainiko dituzte. I. M. Barriola Ikasgelategian egingo dute kontzertua. Sarrera doakoa izango da.

Lehiaketak

Poesia eta Literatur norgehiagokak NUPen Nafarroako Unibertsitate Publikoak Poesia eta Literatur lehiaketak apailatu ditu. Martxoaren 15a da lanak aurkezteko azken eguna. Euskaraz zein gazteleraz osa daitezke izkribuak. NUPek argitaratuko ditu literatura eta poesia lan sarituak.

Kontzertua

Santiago Banda Praxedesen organo emanaldia Deustuan. Deustuko Unibertsitateak antolatu ditu sortzaile berrien erakustaldiez gozatzeko jardunaldiak. Hurrengo asteko asteartean Santiago Banda Praxedesek emango du organo kontzertua. Arratsaldeko 20:00etan hasiko du emanaldia, ikastegiko kapera gotikoan. Sarrera doakoa izango da.